



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ORDENANTZA, TELEFONOTEGI PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA (NAO 78 zbk, 2011ko apirilak 7)

I. TITULUA Arau orokorrak

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da telefonotegi publikoen jarduerarako bete behar diren baldintzak arautzea.
2. artikulua. Ordenantza honen aplikazio esparrua udal mugapea da, eta eragina izanen du, zehazki, halako jardueretan non beren helburua badute telekomunikazio zerbitzua, edozein motatakoa delarik, hala nola, telefonotegi publikoetatik egiten diren oinarrizko telefonia, bideokonferentzia, interneten bidezko telefonia, faxa eta abar.
3. artikulua. Ordenantza honetatik at geldituko dira zerbitzu jarduera osagarriak, hala nola, paketeria zerbitzua, moneta-trukea, elikagaien edo antzekoen salmenta, izan ere horiek baimenen araubidepean geldituko dira, nor bere legeria bereziaren menean.

II. TITULUA Arau teknikoak

4. artikulua. Jarduera honi loturik dauden lokalek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 1. Lokalak honako gune hauek eduki beharko ditu, gutxienez: operatzailearen gunea, kabinak, komuna eta itxarongela.
 2. Komuna egokitua egonen da desgaitasuna dutenendako.
 3. Lokalak bete beharko ditu asots eta dardarei buruzko indarra duen legeria.
 4. Asotsen ondorioz, jarduera honetan gogaitzeak sortzen ahal direnez, beharrekoa izanen da ate-leihoak itxita egotea; hortaz, aireberritze mekanikoaren instalazioa behar dute izan, baita barne-ataria ere.
 5. Lokalak bete beharko du Eraikuntzaren Kode Teknikoari buruzko DB-HE, DB-HS, DB-SI, DB-SUA eta DB-HRetan, Orendako irisgarritasunaren eta diseinuaren gaineko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legean eta aplikagarri zaion araudiaren gainerakoan ezarritakoa.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

III. TITULUA

Funtzionamendu orduak

5. artikulua. Establezimendu hauen irekitzeko ordutegia arautuko da dagokion arautegi bereziari jarraikiz, betiere 10:00etatik 22:00ak arte izanik tartea. Debeku da jarduera horretan aritzea 22:00etatik 10:00ak arte.

IV. TITULUA

Araubide juridikoa

6. artikulua. Telefonotegi publikoa irekitzeko ekintza guztietarako lizentzia eskatu eta hori eskuratu egin behar da Udalaren establezimenduak irekitzeko, dagozkion ordainarazpen fiskalak ordainduta; hori guztia ezertan ukatu gabe lokala egokitze obrarik egin behar bada, horretarako ere dagokion lizentzia eskatu eta eskuratu behar dela.

Telefonotegi publikoak irekitzeko Udalaren lizentzia emateak ez du legezkatzen lokala erabiltzea bestelako jardueretarako.

Lizentziak emanen dira jabetza eskubidea begiratu gabe eta hirugarrenik kaltetu gabe.

7. artikulua. Lizentziarako eskabidearekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

-J.E.Z.ko altaren fotokopia (Udaletxean bertan izanen da eskura).

-Jabetza eskrituraren fotokopia edo, bestela, errentamenduaren kontratuarena, zein lokaletan jarri behar den jarduera, harena.

-Ziurtagiria, teknikari eskudun batek idatzia eta dagokion lanbide elkargoak ikus-onetsia (ale 1), bertan azalduta:

-Lokalaren deskripzioa, alegia, kokapena, azalerak, eta abar.

-Egiaztapena, erakusten duena jarduera ez dagoela sailkatua Ingurumena Babesteko Esku-hartzerai buruzko 4/2005 Foru Legearen arabera eta hura garatzeko Erregelamendua arautzen duen 93/2006 Foru Dekretuan.

-Egiaztapena, erakusten duena lokalaren instalazio elektrikoak, gasarenak, saneamenduarenak, hornidurarenak eta abarrenak egokitzen zaizkiola indarra duen arautegiari.

-Egiaztapena, erakusten duena Eraikuntzaren Kode Teknikoari buruzko DB-HE, DB-HS, DB-SI, DB-SUA eta DB-HRak betetzen direla.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

-Egiaztapena, erakusten duena Orendako irisgarritasunaren eta diseinuaren gaineko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea betetzen dela. Lokalak komun bat bederen beharko du izan desgaitasuna dutenendako.

-Lokalaren planoak, suteen aurkako babes-neurriak zein diren adierazten duena.

-Egin beharreko obren gutxi gorabeherako aurrekontua.

-Egiaztagiria, erakusten duena Udalaren ur zerbitzuan alta emana dagoela, edo alta eskatua dagoela erakusten duen ziurtagiria.

Ezaugarriengatik edota lizentzia eskatu delako ingurumenaren arloko kalifikaziopean dagoen jarduera osagarri baterako, lokala sartu behar bada Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 4.D) eranskinekoen artean, aurkeztu egin beharko da proiektu teknikoa eta tramitatu beharko da aipatu Foru Legearen 57. artikuluan xedatutakoari jarraikiz eta Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko aipatu 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren dagozkien haietan xedatutakoarekin bat.

V. TITULUA

Zehatzeko prozedura

8. artikulua. Arau-haustetzat hartuko dira ordenantza honen aurka doazen ekintzak eta omisioak, edota Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen, Udal Plan Orokorren eta hirigintzako legeriaren aurka doazenak.

9. artikulua. Jarduerarik egiten bada eta irekitzeko udal lizentziarik ez badauka, edo emandako lizentziaren baldintzak betetzen ez baditu, etenda geldituko da 4/2005 Foru Legearen 67. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ezertan ukatu gabe zehatzeko espedientea irekitzen ahal dela, bidezkoa den kasuetan eta aipatu Foru Legearen VI. Tituluan adierazi bezala. Bertan behera gelditzeko agindua ez betetzeak jarduera prezintatzea ekarriko du, ezertan ukatu gabe jokabidea zigor-zuzenbideko arau-haustea ere izan daitekeela uste bada, ekintzak Ministerio Fiskalari jakinaraziko zaizkiola.

Horiek horrela, ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritako ixteko ordua betetzen ez bada, lizentziaren baldintzak ez direla bete ulertuko da.

10. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioari eta zehatzeko prozedurari dagokienez, 4/2005 Foru Legean eta hura garatzeko Erregelamenduan xedatutakoari begiratuko zaio eta, horietan ez dagoen orotan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean eta Zehapen ahalmena erabiltzeko Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan xedatutakoari.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Xedapen iragankorra

Ordenantza honek indarra hartzen duen unetik beretik, ukitutako lokalek euren instalazioak egokitu beharko dituzte sei hilabeteko epean.

Azken xedapena

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.